ARGIA.EUS/LARRUN

KLIMAK BADU ARRAZA

LARRUN #259

EKOLOGISMOAK LARRUAZALA ZERGATIK DAUKA ZURI?

EGILEAK | **THIERRY AMOUGOU ETA SÉBASTIEN MALO**
ITZULPENA | **PELLO ZUBIRIA KAMINO**
AZALA | **JOSEBA LARRATXE *JOSEVISKY***

Munduaren Hego eta Ekialdeko gizarte eta jendeek nola ikusten ote dute klimaren aldeko gure mobilizazioa, alegia, Europan eta Ipar Amerikan klimaren zoratzearen ondorioek kezkaturik zabaldu den beroaldi soziala? Nola interpretatu behar dugu Greta Thunbergek abiatutako protestak gazteen artean eragindako zirrara, oro har klima larrialdiaren inguruko mugimendua bezala, nagusiki Ipar aberatseko mugen barruan geratu izana? Zertan aldatu beharko lirateke krisi ekologikoaren inguruko argudioak mundu osoak bere egin ditzan, eta nagusiki klimaren zoratzearen ondorioak jada latzenik nozitzen dituzten Hegoaldeko jendeek? Hegoaldean sortu eta beren belztasuna aldarrikatzen duten bi intelektual eta akademikoren analisiak ekarri ditugu orriotara. Thierry Amougou ekonomialariak argudiatzen du klimaren larrialdiak, gaur formulatuta dagoen moduan, mendebalde aberatsean formulatu eta zentratutako errelatoa izatean daukala muga. Malcom Ferdinand politologo eta ingeniariak, berriz, azpimarratzen du ekologismoak sorreratik nozitzen duen zama daukala munduan hedatzeko aingura: krisi ekologikoaren sustraian dagoen kolonialismoaren analisiarekin uztartu ez izana.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.718 zenbakiarekin banatua.
JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45
POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA
2021eko urtarrilaren 31

Larrialdi ekologikoa, Mendebaldean zentratutako kontakizuna

Klimaren kezka" edukitzea eta bere alde mobilizatzeko pribilegioa berdintasunik gabe dago banatuta Ipar eta Hego aldeen artean. Alde batetik aberatsen opulentziak eragindako [CO_2] emisioak eta bestetik pobreen bizirauteko emisioek eraginak, kapitalismoaren eta zanpaketa kolonialaren historiak gaur erditu ditu 'munduaren klima' salbatu beharra defenditzen duen hegemonia tekno-zientifikoa eta baita bere ifrentzua den klima-eszeptizismoa ere. Larrialdi ekologikoaz kezkatzen dira orain arte hari probetxua atera diotenak eta ez bere lehen biktimak direnak.

Zein belaunaldirena, zein 'arrazarena', zein nazionalitaterena da klima? Galdera hau, jende txintxoei barregarri iruditu arren, garrantzia handikoa da baldin eta "klimaren belaunaldia" –klimaren alde Mendebaldeko gazteek antolatutako mobilizazioa– irakurtzen bada historia globalaren neurgailu oso batekin; hau da, kontuan hartzen bada Mendebaldea munduaren zati bat baizik ez dela, gainerakoen historia guztiak ere entzun gabe ezingo dela arazoa erdipurdika baizik ulertu.

DENOK "KLIMAREN BELAUNALDI"?

Klimaren berotzearena ez da soilik goraka doan tenperaturaren kontua: batez ere da Mendebaldean bezala hortik kanpoko herrialdeetan abian dagoen modernizatze prozesuaren errendimendu gero eta txikiagoen edo negatiboen erakusgarria. "Klimaren belaunaldia" kontzeptua, definizio demografikoa utzi eta zibilizazioaren ikuspegi batetik aztertzen baldin badugu, ulertu dezakegu honela ere: Mendebaldeko zibilizazio tekno-zientifikoak gaurko mendebaldar askorengan eragin duen klimarekiko sentsibilizazio handiago bat.

Horren froga da Afrikan, Erdiko Asian edo Latino Amerikan klimaren alde ez direla mobilizatzen hango eskola-umeak, lizeoetako ikasleak, unibertsitateetakoak, ikerlariak eta politikariak. Han ez baita hain itogarri sentitzen kultura zientifikoak 'klima globalaz' egin duen eraikuntza, nahiz eta sentsibilitatea egon badagoen. Lurraldeotan Ingurumenari lotutako aldarrikapenak mamitzen dira Lehenbiziko herriek eta nekazariek beren bizimoduak zaintzeko daramatzaten borroketan. Ondorioz, Europako 'klimaren belaunaldiak' Mendebaldeko bizimodua gaitzesten duten bitartean, gizarte ez-mendebaldarrak borrokan ari dira beren antzinako bizimoduak babesteko kapitalismoaren lapurretatik.

Munduko klimaren gaurko ikuspegi teknozientifikoa ez al da, beraz, izaera historikoa duen planteamendu sozial, geopolitiko, ekonomiko eta politiko bat? Errealista ote da dimentsio anitzeko planteamendu honetaz hitz egitea aldi berean auzitan jarri gabe 'klima globala'-k dauzkan kategoria politiko, ekonomiko, ingurumenezko eta ekologi-

THIERRY AMOUGOU

EKONOMIALARIA

Thierry Amougou ekonomialaria Kamerunen sortu zen eta Belgikan Lovainako unibertsitate katolikoan ari da irakasle. *L'Esprit du capitalisme ultime: démocratie, marché et développement en mode kit* [Amaierako kapitalismoaren izpiritua: demokrazia, merkatua eta garapena kit moduan] (2019) liburuaren idazlea, pentsamendu antikolonialistan erreferentzia klasikoetakoa den Centre Tricontinental erakundeak plazaratzen duen *Alternatives Sud* aldizkarian plazaratu du 2020an orriotara dakarkigun artikulua, *L'Urgence écologique, un récit occidentalo-centré* tituluarekin.

koak? 'Klima globala' kontzeptuak bere izaera teknozientifikoarekin egituratzen du mundua, ulergarritasun bat ematen dio politika klimatikoari, baina ezkutatzen ditu kapitalismo historikoaren dinamikaren barruan gertatutako hainbat zanpaketa, baztertze, desparekotasun eta diskriminazio sozial eta kultural, hain zuzen ere klima globala arazo larri bihurtu dutenak.

'TXIMELETA EFEKTUA'

Klimaren zoratzearen kausa nagusietakoa den lapurreta kapitalistari dagokionez, hura jasan dute Afrika, Latinoamerika eta Erdiko Asiako hainbat belaunaldik. Kaosaren teoriari jarraituz esaten bada tximeleta baten hegalkadek eragin dezaketela milaka kilometrotara dagoen sistema oso bat dardarka jartzea, nola konpentsatu behar litzateke gaur egun kolonialismoak indigenen fauna, landaredi eta zibilizazioak ez babesteagatik eragindako klimaren zoratzea?

LARRIALDI EKOLOGIKOAZ KEZKATZEN DIRA ORAIN ARTE HARI PROBETXUA ATERA DIOTENAK ETA EZ BERE LEHEN BIKTIMAK DIRENAK. ZEIN BELAUNALDIRENA, ZEIN 'ARRAZARENA', ZEIN NAZIONALITATERENA DA KLIMA?

'Klima globalak' behar bezala aztertzen ote du nola antolatu beharko den justizia inter-generazionala gizarte ez-mendebaldarron mesedetan? Klimaren aldeko Funts Berdeak [GCF ingelesezko sigletan, Nazio Batuen Erakundeak klimaren aldaketaren aurrean herrialde txiroei laguntzeko antolatutako funtsa], barrutik hain hutsa egonda, balio ote dezake tamaina horretako helburu bati aurre egiteko? "17 urte dauzkat eta klimaren aldaketarekiko beldurrak mugiarazten nau" zioen hedabideen aurrean Anuna De Weverrek. Belgikako mobilizazioen burua den militante honen beldurra inolaz ere ez da hedatuko Mendebaldekoak ez diren eskualdeetan, baldin eta bere adineko gazteek beldurra badiote batik bat lotara gosea ase barik joan beharrari, edateko urik ez edukitzeari, eskolara ezin joanari, babesik ez edukitzeari edo haur soldadu bilakatu beharrari.

Nola defenditu dezakegu elkarrekin munduaren klima, milaka gazte

eta haur beren gurasoekin itotzen ari direnean Mediterraneoak irentsita, beste gazte eta haur batzuk Brusela, Paris edo Quebecen guraso eta irakasleei eskutik helduta manifestatzen ari diren bitartean? Youth For Climate [Gazteak Klimaren Alde] mugimenduak ezin lezake arrakastarik izan gai oinarrizkoak, prematerialistak, falta diren herrialdeetan, mobilizazio hori han iruditzen zaielako luxuzko kezka postmaterialista bat. Arazoa ez da kezkak oinarririk ez izatea, kontua da gure pentsamendua klimaren larrialdiaz kezkatzen dela eguneroko gabezien estutasunetik askatuta dagoenean: sabel gosetiarekin klima gutxi!

"KLIMAZ KEZKA" EDUKITZEKO PRIBILEGIOA

Herri txiroak eta beren populazioak zigor bikoitza jasatera kondenatuta daude. Zeren eta, klima zoratzen ari den Lur berean bizitzeaz gain, elkarrekin zer ikusi behar dute Hego Amerikako 'faveletako belaunaldiek' eta Europako 'klimaren belaunaldiek'? Latinoamerikako gazte txiroek eta oro har planetako Hegoaldekoek ordainduko dute klimaren zoratzearen prezio garestia, Europako 'klimaren belaunaldikoek' ordainduko dutenaren oso ezberdina. Kongoko umeek, sarritan Mendebaldeko multinazionalen hornidurarako meategi artisanaletan bizirik lurperatuta ari direnek, ba al daukate 'klimaz kezkatzeko' pribilegiorik senperrenak egin behar dituztenean sos bat biltzeko?

Belaunaldien arteko injustiziak etorkizunaz hausnartzeaz gain eraman behar gaitu iraganaz eta gaur egunekoaz eztabaidatzera. Orain Afrikari eskatzen zaio ez dezala gehiago jarraitu 'zibilizazioan sartzeko' bidean, noiz eta garapen baten jabe izatera iritsi ez denean eta gainera galdu duenean lehengo berezko bizitza paradigma, Winston Churchillek kolonietako idazkari nagusi zenean idatzitako *My African Journey* [Afrikako nire bidaia] hartan erakutsitako paradigma hura.

Churchillek liluraturik deskribatu zituen Afrika Ekialdean 1907an ezagututako kolore anitzeko tximeleta mordo izugarriak. Gaurko munduak Afrikaren aniztasun hura berreskuratu nahi luke biotopo baten osasun ekologiko onaren adierazgarritzat, 'tximeletaren paradigma'. Alegia, Churchill bera 1905ean Afrika 'zibilizatzen' ibili ostean, orain Afrikari munduak eskatzen dio 'deszibilizatzea'. Baina zein belaunaldik pagatu behar du modernizatze kapitalistak suntsitutako tximeleta afrikarren zorra? 'Hiru hamarkada loriatsuak' [II. Mundu Gerra ondorengo oparotasun ekonomiko aldia] ezagutu zituzten europar haien biloben belaunaldiak ala berena zen 'tximeletaren paradigma' sutsuki defenditzeagatik urkatu zituzten afrikarren bilobenak? Nola berradiskidetu bi belaunaldi ezberdinok klimaren alde egin beharreko murrizketen inguruan, beren bizimoduak hain errotik kontrajarriak direnean?

Umeak jolasean Madagaskarreko oihan suntsitu batean.

ASAHI SHIMBUN

Haur eta gaztetxo langileak Kongoko meategi batean.

WIKIMEDIA

"Gaur planetaren klimak nozitzen dituen arazoak dira Zurien eta Beltzen, Zurien eta Gorrien, eta Zurien eta Horien arteko urte luzeetako harremanen ondorio".
Thierry Amougou

AFP

DENAK BAPORE BEREAN, BAINA DENENTZAKO LEKURIK EZ SALBAMENDU TXALUPETAN

Kapitalismo merkantilista eta industrialaren hasieretan Atlantikoan gaindi gertatutako esklabo trafikoak erakusten du kapitalismoak erregaitzat erabili zituela zenbait populazio arrazializatu: indioak, beltzak eta horiak. Horren adierazgarri bikaina da Voltairek *Candide*-n erakusten duen 'Surinamgo beltz' hura, zeinaren esku eta oin anputatuak izan baitziren menpekotasun erabatekoz produzitzeko erregai eta pizgarri.

'Surinamgo beltza'-k erakusten du arrazaren osagaia bazutela kapitalismoaren barruan mendez mende ingurumenaren eta ekonomiaren arteko beharrezko oreka suntsitu duten desberdintasun sozialek. Kapitalismoak garai hartan mortairu edo porlantzat erabili baldin bazituen odola, hilketa, urkatzea eta morrontzako lana, kapitalismoak itxuraldatu duen mundu batean gaur egun berriro agertzen dira fantasma gisa klimaren arazoan, Achille Mbembe filosofoak aipatzen zuen *la raison nègre* (arrazoi beltza) horretan mamituz.

Gaur planetaren klimak nozitzen dituen arazoak dira Zurien eta Beltzen, Zurien eta Gorrien, eta Zurien eta Horien arteko urte luzeetako harremanen ondorio ingurumenezkoak. Binomio horietan bigarrenek –Beltzek, Zuriek, Gorriek, Horiek...– ez dute soilik zanpaketa, mesprezua eta azpiratzea sufritu: horrez gain, beren kultura eta ingurumenarekiko zeukaten harreman propioa ere zanpatu eta suntsitu dizkie Mendebaldeko kapitalismoak naturarekiko egiten duen erabilera instrumentalak.

Produkzio kapitalistak Zurien mesedetan egin duen arrazializazio historiko hau gaur egun ere berresten da; izan ere, hondamendi ekologikoen larrialdia salatzen dutenak nagusiki dira kapitalismoaren harreman arrazialetan irabazle izan direnak. Arazoa gutxi edo batere aipatzen ez dutenak dira, berriz, harreman historiko arrazializatuaren galtzaileak, egunero biziraun beharraren buruhausteetan itota bizi direnak. Zein dira produkzio kapitalistaren eta honek eragin duen 'klimaren arazoaren' gaurko 'Surinamgo Beltzak'?

KLIMA GLOBALAK ZEIN NAZIONALITATE DAUKAN

'Pachamama', Ama Lurra, ugazama [ama elikatzailea?... Jatorrizkoan *Mere nourricière*], horrela izendatzen dute Lurra Latinoamerikako indigenek. Klimaren gaia fronterarik gabekoa denez, hura zaintzeko politikek hartu beharko lukete

2019ko martxoan Mozambikeko eskualde zabalak suntsitu zituen 'Idai' urakana klimaren aztoratzearekin lotu dute zientzialariek.

SIPHIWE SIBEK

kontuan Lur bakar bat, herri bakar bat, nazio bakar bat: horrela Lurra-nazioa litzateke klimaren nazionalitatea. Gaur egun ekonomiak, kulturak, politikak eta migrazioen dinamikek ez dute erakusten, urrik eman ere, mundua gu guztion Pachamama denik.

Europara migratzaileak datoz pentsatuz ez bakarrik hemen segurtasun soziala, politikoa eta ekonomikoa hobeto ziurtatuta daudela, pentsatzen dute ere kontinente hau ez dagoela beren sorterria dagoen Lurra-nazio berean. Ordainetan, Europa sendotzen ari bada gotorleku moduan, esan nahi du europar askok babestu egin nahi dituztela beren kultura eta ongizate estatua, baldin eta badaude. Ondorioz, hitzaldietan aipatzen da klima zaintzeko mundu osoa nazio bakar bilakatu beharra dagoela, ideietan bai aipatzen da baina askoz gutxiago jokabide politiko errealetan.

DISKURTSOAK IRADOKITZEN DU DENOK GOAZELA ITSASONTZI BEREAN BAINA DENOK EZ DAUKAGU SARBIDERIK SALBAMENDU TXALUPETARA (...) SOLAIRU EZBERDINETAN GOAZ, BATZUEK LEHENENGO KLASEAN ETA BESTEAK BIGARRENEAN

Hauek analizatzen baldin badira migrazioen arloan, bereziki, ageri da klimak hainbat nazionalitate badituela.

Alde batetik, txiroek uste dute iparraldean egoera ekonomiko, politiko eta sozialek baimentzen dutela klimaren berotzea gutxiago nozitu ahal izatea; beste aldetik, Iparreko herrialdeek beren baldintza politiko, sozial eta ekonomikoak babestu nahi dituzte klimaren berotzearen ondorioak planetako txiroek baino hobeto jasan ahal izateko. Diskurtso honek iradokitzen du denok bizi arren itsasontzi berean, denok ez daukagula sarbiderik salbamendu txalupetara. Praktikak erakusten du solairu ezberdinetan goazela itsasaldi honetan, batzuek lehenengo klasean eta besteak bigarren klasean.

Lurra nazio bakartzat hartzen ez denez, hainbat klima eredu dauzkagu aldi berean. Samuel Huntingtonen ideiei jarraiki, 'klima globala' da klimarekiko planteamendu ezberdinen arteko gerra. Bush aitak 1992an Rioko Lurraren Gailurrean

bota zuen "Gure bizimodua ez da negoziagai!" eta Margaret Thatcherrek 1980an zabaldutako "Ez dago alternatibarik!", biak ere dira zibilizazio eredu beraren osagai, klimaren arazoa zibilizazio identitate baten hots, kapitalismoaren, mende jarritako eredu batenak. Alegia, nazioa eta bere bizitza eredua aldaezinak direla klimaren beroketa gora-behera: planteamendu honetan klima politikaren koste-etekinak argudiatzen dira termino identitarioetan.

Gero daukagu Edouard Glissantek aipatzen duen 'mestizaia' edo 'kreolizazio' eredua. Honetan ez da aipatzen klimarekiko ikuspegi ezberdinen arteko txokerik, baizik eta horien mestizaiak eraman gaitzakeela klima globalaren nazioa izango den Pachamamara. Azkenik, Achille Mbembek bezala azpimarra genezake munduaren etorkizun 'negroa' [*devenir nègre du monde*]: klimarena dela irteerarik gabeko paradigma, zeinetan gizaki guztiok izango baikara klimaren beroketaren 'negroak', klimaren 'Surinameko Beltzak', klimaren politika neoliberalen itsasontziaren azpiko aldeko solairuan bidaiatu beharko dutenak.

Europako eta Afrikako gaueko argiak, batzuen eta besteen CO_2 isurien adierazgarri.

KONTAKIZUN MENDEBAL-ZENTRATUA

'Klima globala' deituak hainbat arrazionalitate daramatza bere baitan tira-biran. Azalean arrazoiaren heroikotasuna eta hegemonismo teknozientifikoaren itxurak erakutsiz, mamian ukatu eta fagozitatu egiten ditu mendebaldarrak ez diren kulturek klimari buruz dauzkaten ikusketa pre-zientifikoak, hauetara ateak irekitzeko orde. Lehen herriek, beren bizimoduarekin planetaren bi birikak –Amazoniako eta Gineako golkoko oihanak—zaindu dituztenek, badituzte lekuko ezagutzak sekula agertzen ez direnak Klimaren Garapenari buruzko Gobernu arteko Adituen Taldearen (GIEC) txostenenetan.

Ezin konta ahala herri indigenaren iraganak suntsitu dituztenak ez

MOBIILIZAZIOAK
Klimaren aldeko mobilizazioak egin dira batik bat mundu aberatsean 2019 eta 2020ko irailetan; argazkietan, ezkerrean Austrian egindako bat eta eskuinean Parisen 2020ko irailean burututakoa, tartean zela Greta Thunberg.

RAINFOREST ALLIANCE

al dira izan, bada, iparraldeko eredu matematiko eta fisikoak? Nola kontabilizatzen dira Iparrak bere oparotasunean isurtzen dituen emisioak eta Hegoak biziraun nahian emititzen dituenak? Munduko eskualde bakoitzak eduki behar balu bere kultura eta arazoekin bateragarria den klima eredu bat, orduan gaurko AEBek klimarekiko eszeptizismoa leukakete klimarekiko argudio nagusi. Hemen klimaren beroketari buruz halako iritzi-demokrazia bat daukate kontrajartzen dituena arrazionalitate zientifikoa eta arrazionalitate demokratikoa: iritzi-demokraziaren izenean baimentzen da egiatzat ematea ebidentzia zientifikoak gezurrak edo asmakizunak direnak erakutsi dituenak. Mendebaldeak, beraz, bi arrazionalitate dauzka borrokan bere baitan. Batek erakusten du klimaren beroketa existitzen dela baina besteak ukatu egiten du eta klimari buruzko akordioak eragozten ditu.

Hau ez al da gertatzen guk zientziak deitzen ditugunak balioekin lotuta daudelako? GIECeko kimikoek, fisikoek, matematikariek eta estatistikariek badauzkate, jakina, beren ereduen parametroen antolaketan muturra sartzen duten balioak. Ereduok sarritan mundu mailakoak dira baina eraiki dituzte Mendebaldeko jendeek (GIECen 27 eredu etatik 21 zientzialari iparramerikarrek sortu dituzte) eta haien kultura ezin da geratu ekuazioen atarian!

YOUTH FOR CLIMATE MUGIMENDUAK EZIN LEZAKE ARRAKASTARIK EDUKI GAI OINARRIZKO ETA PREMATERIALISTAK FALTA DIREN HERRIALDEETAN, HAUETAN MOBILIZAZIO HORI IRUDITZEN ZAIELAKO LUXUZKO KEZKA POSTMATERIALISTA BAT

Objektibotasuna boterearen tresna da modernitatea abiatu zenetik eta Mendebaldea da erabaki eta arautzen dituena 'klima globala' eta horri lotutako politiken objektibatzeko moduak. 'Klima globala'ren kontakizunak jarraitzen du erabat mendebal-zentraturik egoten. Eta ezkutatzen du hitz horrek gaur egun bere baitan daramatzala, legitimatuz, sailkapen kolonial eta eboluzionistak: gizarte tradizionala versus gizarte modernoa, komunitatea eta gizartea, natura eta kultura, etnologia eta soziologia, Mendebaldearen historia –zientifikoa denez gero, unibertsala– eta Mendebaldetik kanpoko ikuspegiak, hauek ez balira bezala zientifikoak.

RFI

MALCOM FERDINAND

POLITOLOGOA ETA INGURUMEN INGENIARIA

Malcolm Ferdinand politogo eta Ingurumen ingeniaria Martinika uhartean sortu zen eta Frantziako CNRS Ikerketa Zientifikoen Zentro Nazionalean ari da ikerlari. 2019an plazaratu du *Ekologia dekoloniala: ekologia pentsatu Karibeetatik* liburua, mundu frankofonoan oihartzun puska bat eduki duena. Ezaguna da ere bananondoei jaurtitzen zaien klordekona pestizidak herritarrei eragin dizkien kalteen salaketan egin duen lanagatik. Sebastian Malok elkarrizketatu du 2020ko Giza Eskubideen FIFDH zine festibalaren emankizunetako batean.

MALCOM FERDINAND

"Mendebaldeko ekologismoa zabaldu da iragan koloniala ahaztearen truke"

SÉBASTIEN MALO

Malcom Ferdinand: Ikerketa honetan bultzatu nauen ideia nagusia zera izan da: nola pentsatu ekologia, krisi ekologikoa, abiatuta Karibeetako mundutik, Karibeetako testuinguru eta kosmogonietatik, zehazkiago eskualde honek daukan esklabismo historiatik abiatuta.

Zer esan nahi duzu zuk 'ekologia dekoloniala' esatean?

Nire ikasketetan, eta baita bizitzan ere, topo egin dut liburuan 'eten bikoitza' [double fracture] deitzen dudan horrekin, modernitatearen eten bikoitzarekin: alde batera kolonialismoaren ondareak, pentsamendu postkolonialak, dekolonialak... eta beste aldera ekologiari eta ingurumenari lotutako pentsamenduak.

XX. mende erdi aldean izan dira modernitatearekin kritiko aritu diren mugimenduak: batetik mugimendu ekologista bere aldaera guztiekin, eta bestetik mugimendu independententistak, antikolonialistak, pentsamendu postkolonialak, dekolonialak. Biak modernitatearekiko kritikoak baina bakoitzak bere bidea egin dutenak, elkarrekin gurutzatu gabe, elkarren artean benetan eztabaidatu gabe.

Haustura bikoitz hori nabari daiteke, hasteko, ekologisten inguru soziologikoan: ezaguna da militantziaren osaketan gutxiengo beltz eta arrazializatuetako jende gutxi ageri dela Gobernuz Kanpoko Erakunde ekologistetan, Atlantikoaren bi aldeetan, izan Frantzian edo AEBetan, edo bi Ameriketan. Mugimenduen osaketa soziologikoa aipatu dugu baina berdin aipa dezakegu krisi ekologikoa aztertzeko ekologistek eraiki dituzten erreferentzia kontzeptualen mundua ere. Erreferentzia horietan ere deigarria da zein urriak diren pertsonalitate arrazializatuak, diasporakoak, beltzak nagusiki.

Gertatzen dena da bere oinarrietan, pentsamenduan, osaketan, praxian... Mendebaldeko mugimendu ekologistak bazter utzi duela modernitatearen alde dekoloniala, eta bereziki esklabismoaren historia. Ausentzia hau modu mingarrian erakusten du mugimendu ekologistaren hasierako koadroak. Ekologiaren hiztegi askotan, pentsamendu ekologistaren erreferentzia edo genealogia egiterakoan bi izen aipatzen dira sarri: Henry David Thoreau AEBetan XIX. mendean eta Jean-Jacques Rousseau Suitzan, suitzarrok oso ondo ezagutzen duzue. Hor daude Thoreauren *Walden* liburua eta Rousseauren *Les Rêveries du promeneur solitaire*.

Aipamen horiek erakusten dituzten koadroetan dauzkazu bi gizon, familia onetan jaioak, zuriak eta naturarekiko harreman asozial bat daukatenak: bakarrik ari dira,



WIKIPEDIA

Esklaboak Afrikatik Europara eta Ameriketara zeramatzaten itsasontzietako baten sotoan pilatuta, Bristolen aurkitutako garaiko irudi batean.

beste inor barik. Dudarik gabe ez -gizakiekin badauzkate harreman eko-sozialak baina funtsean dira gizon zuri eta libreak gizarte post -kolonial eta post-esklabistetan, batzuetan gizarte kolonial eta esklabistetan.

Egiten duzun ohar historiko oso interesgarri hori, egia esan, ez zaio beste askori entzun. Baina horrez gain, zerk egiten du gaurko ekologismoa ekologismo kolonial?

Hasteko, garrantzitsua da diskurtsoa deseraikitzea, nabarmentzea diskurtso ekologista soilik zabaldu ahal izan dela iragan koloniala isiltzearen baldintzapean. Honek esplika dezake zergatik dauzkagun gaur hainbat kontzeptu eta pentsamendu gai ez direnak Lurreko biztanleen gehiengoaren esperientziak kontuan hartu eta azaltzeko, batik bat kolonizatuak izan diren eta migrazio kolonialen emaitza diren populazioen esperientziak.

Horrek esan nahi du gure gramatikak, gure hiztegiak, bere definizioetan bertan bazterrean uzten dituztela nahitara edo nahi gabe planetako biztanleen zati handi bat. Antropozenoa bezalako kontzeptuak, edo kolapsoaren teoriek... kontzeptuok funtsean sustatzen dute Gloria Wekkerrek liburu eder batean 'zurien errugabetasuna' [*white innocence*] izendatu zuena. Honek guztiak ondoriotzat dakar mugimendu ekologista urruntzea Lurraren parte oso batengandik.

Zuk Negrozenoa aipatzen duzu Antropozenoaren alternatibatzat... Zer esan nahi du horrek?

Antropozenoa kontzeptu berria geologokoek proposatu zuten eta oso kritikatua izan da, batik bat antropologoen aldetik, kontzeptu horrekin ezin direlako ulertu Lurreko ekosistemen suntsiketa eragin dutenen arteko desberdintasunak. Ondo dakigu gaurko klimaren beroketa eragin dutenak ez direla izan Nairobiko, Port-au-Princeko edo Martinikako txabolategietan bizi diren pertsonak, baina Anthropos-Gizakia bezalako abstrakzioa asmatuz homogeneizatzen eta mozorrotzen dira dauden hainbeste desberdintasun eta botere harreman desberdin, suntsiketa horien osagaiak diren hainbeste injustizia. Izaki abstraktu hori sortuta injustiziak isilpean geratzen dira.

Anna Tsing, Donna Haraway eta beste hainbat antropologok, edo Andreas Malm bezalako pentsalariek, Christophe Bonneueil edo Jean-Baptiste Fresoz bezalako historialariek... bestelako kontzeptuak proposatu dituzte terminoan bertan azal daitezen botere harreman desberdinak, hala nola Kapitalozenoa [*Capitalocène*], Plantaziozenoa [*Plantationocène*] eta abar. Nire li-

> “
>
> **ANTROPOZENOA KONTZEPTUAK EDO KOLAPSOAREN TEORIEK SUSTATZEN DUTE ZURIEN ERRUGABETASUNA. NEGROZENOA KONTZEPTUAREKIN NABARMENDU NAHI DUT MODERNITATEAREN SORRERAN ESKLABO SALEROSKETAK EDUKI DUEN GARRANTZIA”**
>
> MALCOM FERDINAND

buruan, egia, aipatzen dut Negrozenoa nabarmendu nahian modernitatearen sorreran Atlantikoan zeharreko esklabo salerosketak eduki duen garrantzia eta baita ere esklabo eramandako afrikarrek Lurraren populatze kolonialean bete duten papera.

Asmoa ez da Antropozenoa baino kontzeptu unibertsalago bat sortzea, Antropozenoa beste hitz batez ordezkatzea. Ni ez nago Lurreko esperientzia guztiak hitz bakar batean bil daitezkeela uste duen fikzio horretan, gaur bizi dugunaren hainbat dimentsio bilduko dituzten hitzen pluralitatearen alde nago. Negrozeno kontzeptuak azpimarratzen ditu esklabismoaren dimentsio politikoa eta soziala. Hots, nabarmentzen du gizakiaren morrontza baina baita ere horren dimentsio metaboliko eta energetikoa, gizaki zapalduok izan baitira bortizkerian oinarritutako ekonomia horiek, gizakiak bezala ekosistemak suntsitu dituzten sistema hori elikatu duten energia eta lehengaia.

Zure ikerlanak batik bat Frantzian zentratzen dira eta Frantziak itsasoaz haraindi egin duen kolonizazioaz. Uste duzu hor aurkezten dituzun gaiek badutela izaera unibertsalago bat, beste adibideetara aplikagarriak direla?

Ingurumen Justiziaren aldeko mugimendu berria ari da zabaltzen, arrazismoa eta ingurumena lotzen dituena.

Nire sustraiak Karibean daude eta Karibea ez da soilik frankofonoa. Horregatik nire liburuan kapitulu bat Puerto Ricori eman diot, beste bat Haitiri. Baina sustraiak ditut Mendebaldean ere eta eztabaidan ari naiz Mendebaldeko pentsamendu ekologisten tradizioarekin. Honek Mendebalde osoa hartzen du, bere inperio izaerari baitagokio, Hexagonoaren eta honek itsasoz beste aldean dauzkan lurraldeen markoa gainditzen du. Izan dadin Maurizio uharteetan edo Indotxina deitu zitzaion hartan, Herbehereen kolonia izandako Indonesian edo Amerikako Estatu Batuetan bertan.

GRAND CANYON TRUST

Navajo jendea AEBetan protesta egiten beren lurretan uranio meategiek egindako suntsiketen kontra.

Nuklearren adibidea har dezagun, esate baterako. Mugimendu ekologista hein handi batean sortu da bonba nuklearraren kritikaren gainean, oso nabarmen Greenpeaceren kasuan. Mugimendu honek, teknikaren kritikazko testuinguru zabalago batean kokatzen den mugimenduak, isiltzen du teknika horiek posible egin dituena egoera koloniala izan dela. 1945ean Hiroshima eta Nagasaki gainean leherrarazi ziren bonba atomikoak Kongoko uranioz eginak zeuden.

Hor ikus dezakezu teknikaren kritika antikoloniala egin duten jendeekin aliantzarik lotu barik egin dela bidea. Kolonizatuak teknika horien kontra ari ziren, adibidez AEBetan Navajo jendeak, Manhattan proiektua aurrera atera eta bonben leherketen probak egiteko beren lurretatik kanporatu zituztenak. Ghanako jendea, Kwame Nkrumah buru, frantsesek Algeriako basamortuan proba atomikoak egitearen kontra aritu ziren. Azken finean, beti egon dira herri kolonizatuak aurre egin diotenak bai beren gorputzak eta bai Lurra suntsitzeko ahaleginari.



JOHN MUIR, AEBetako parke nazionalen eta 'wilderness' (basatia) kontzeptuaren sortzailea.

WIKIPEDIA

Alabaina, kontakizun bat asmatu da batzuei abantaila ematen diena orain arte gertatutakoaren erantzukizunak ahaztuz, ekologismoa asmatu balu bezala gizon zuri batek pasioan zebilela natura birjina batean… natura hori berez batere ez zenean birjina, gainera. Hori eginez ekologismoa despolitizatu da, eta horrela iritsi gara gaurko egoerara, non jarraitzen den diskurtsoetan ere errepikatzen lehengo bazterketen berdinak.

Honek, beraz, ekarri gaitu bi aktibista sail sortu eta jardutera paraleloan, batetik aktibista antikolonialistak eta bestetik ekologistak. Konta'iguzu bikoiztasun honen sorrera eta zergatik iruditzen zaizun kaltegarria. Eta zer egin litekeen biak elkarrizketan has daitezen.

Hausturak sustraiak dauzka modernitatearen oinarri kolonialetan. Adibide bat jartzeko, John Muir AEBetan parke nazionalen sortzailea izan zenak *wilderness* [basatia, gizakiak ukitu gabea, elkarrizketatzaileak frantsesez itzuli *nature vierge,* natura birjina] aipatzen duenean, hizkera arrazista darabil naturaz mintzatzeko, natura horretan bizi diren Ameriketako Lehen herriak kanpo uzten baititu bizi diren leku horietatik.

Antzekoa esan daiteke Frantziari dagokionez Pierre Poivre famatuaz Maurizio uharteez ari denean; leku hartan basoen suntsiketaren eta klima aldatzearen arteko lotura egiten lehena izan zen gizon hau kolonia esklabista bateko arduraduna zen, bera ere esklaboen jabea. Beraz, haustura ez dute eragin kolonizazioaren kontra borrokan ari direnek, alderantziz baino: ekologismoaren diskurtsoa eraiki dutenek aipatu barik arraza, arrazismoa eta kolonialismoa, horiek eragin dute haustura. Ondorioz, gaur egun badirudi diskurtso antiarrazista eta diskurtso ekologista bi mundu ezberdin direla.

Zer gertatu da, orduan? Herri kolonizatutzat beren duintasuna berreskuratzeko borrokan, beste teoriko batzuek bazter utzi dituzte-la gai ekologikoak, gaur munduan gertatzen denarekin zuzeneko zerikusia dutenak. Ziurrenik, sentitu dutelako mugimendu ekologistetan ez zeukatela tokirik herri indigena eta kolonizatuen arazoek. Elkarrenganako mesfidantza bat dago, zoritxarrez.

> **"MENDEBALDEKO EKOLOGISMOAK BAZTER UTZI DU MODERNITATEAREN ALDE DEKOLONIALA, ETA BEREZIKI ESKLABISMOA (…) EKOLOGISMOA ASMATU BALUTE BEZALA GIZON ZURI BATZUEK NATURA BIRJINA BATEAN PASEATUZ"**
>
> **MALCOM FERDINAND**

Zergatik uste duzu dela zoritxarrekoa?
Kaltegarria da, kontraproduktiboa delako ekosistemak defenditu nahi izatea aldi berean ohartu gabe ez baldin bada aldatzen gizakien gaineko zanpaketa ez dela konponduko ekosistemari egiten zaion zanpaketa. Eta beste aldetik, pentsamendu antikolonialistari dagokionez, nabarmena da hondamendi ekologikoen lehen biktimak direla herri arrazializatuak, herri kolonizatuak, hegoaldekoak. Beraz, egiteke dago aliantza bat gaur jokoan dagoen arazo ekologikoaren ikuspegi askoz baterakoiagoa antolatuko duena.

Alabaina, aliantza hau ezingo da egin orain arte hausturaren azterketa kritikoa egin gabe, pentsamendu ekologistak kolonialismoaren historiaz egin duen ezkutatzearen azterketa kritikoa.

Aliantza hau gertatuko den itxaropenik baduzu? AEBetan, esaterako, bada mugimendu oso indartsua Environmental Justice [Ingurumen Justizia] izenekoa, ingurumenaren arazoek jende arrazializatuetan dauzkan ondorioak barnatzen ahalegintzen dena...
Ekologia dekoloniala ez dut nik liburu honetan asmatu, 2019an, herri askok hori egiten dute askoz lehenago. AEBetan bertan, aipatzen duzun mugimenduak baino askoz lehenago ildo hori jorratu dute lehen herrietako jendeek, esklabotzatik ihesi joandakoek eta beste. Egia da AEBetako Ingurumen Justiziaren [*Environmental Justice*] aldeko mugimendua oso interesgarria dela, arrazismoa eta ingurumena lotzen dituelako, kontzeptua bera erantzun bat da haiek salatzen duten 'ingurumen arrazismoa' ideiari. Baina arriskua dago ahalegin hau ere errekuperatua izan dadin iragan kolonialari estalkia jartzeko berriro.

Hori gertatu da Frantzian, esaterako: hemen ingurumen justiziaren aldeko mugimendua erabat modu despolitizatuan ezarri da. Frantzian uste da gai hau bestela planteatzen dela AEBetan, han arrazakeria handia dagoelako, baina hemen desberdintasunak ez direla hango modu berean gertatzen... funtsean, jarraitzen da pentsatzen arrazakeriak eta kolonialismoaren aferak ez daukatela batere zerikusirik ekologismoarekin.

Alabaina, ez dugu bistatik galdu behar zera: azken 500 urteotan Lurrak jasandako ekosistemen galera soilik posible izan dela lehen herrien zapalketaren gainean, hori mundu osoan, Ameriketan, Afrikan, Asian. Gaur aitortu nahi ditugu ingurumenari egindako suntsiketak

GREENPEACEko fundatzaileak 1968ko argazki batean, nuklearren aurkako ekitaldi batean.

GREENPEACE

Amazoniako Yanomami etniako ama-semeak.

WIKIPEDIA

aitortu barik herri indigenen gaineko zanpaketak. Horregatik dauzkagu hain diskurtso exotikoak: "Begira nola bizi diren lehen herriak, naturarekin harmonian", txalotzen da bizimodu hori, kosmobisio hori, aldi berean ontzat eman gabe herriok oraindik ere egiten dituzten justizia eskeak.

Joan den urtean, Frantziaren mende dagoen Polinesiatik Oskar Temaruk auzitara eraman du Frantziako estatua gizateriaren aurkako krimenak egin izanagatik proba atomikoak bertan burutzean. 1995a arte 196 leherketa atomiko egin zituen Frantziak Aljerian eta Polinesian eta oraindik ez da justiziarik egin. Bonba horietako batzuek Japonian AEBk leherrarazitakoak baino hainbat aldiz bortitzagoak izan dira, pentsa bertako jendeei ze nolako kalteak eragin dizkieten.

Zuk galdetura itzuliz, bai, egia da zenbait zubi eraiki dela baina askoz zubi sendoagoak izan behar dute, eta justizia ez dadila egin soilik herri guztien arteko bakan batzuentzako, denentzat baizik.

Bukatze aldera, garaiotan ikusten ari gara teoria malthusianoen indarberritze bat mugimendu ekologisten artean, batik bat klimaren aldaketaren borrokan dabiltzanetan. Diote "haur gutxiago jaiotzen baldin badira, eman dezagun Nigerren, jaiotze tasa altuenak dauzkaten herrialdeetan, izango da nahikoa Lurreko jende guztientzako, horra klimaren aldaketaren soluzioa". Iruditzen zaizu pentsaera hori indartzearen arriskua dagoela?

Ez da hanka-sartze bat, diskurtso arrazista bat da argi eta garbi. Zeren eta beti herrialde arrazializatuak baitira beren ugaritzea mugatu beharra omen daukatenak. Eta diskurtso oso-oso misoginoa da, berriro ere aipatzen duelako emakume arrazializatu eta kolonizatuen sabelak kontrolatzea. Abiatzen baldin bagara soilik Lurrean bizi behar duten gizakien kopuruak aipatzen dituen diskurtso batetik, kontuan eduki gabe zein bizimodu ezberdinak daramatzaten iparramerikar batek, suitzar batek edo frantses batek eta, kontrastean, Nigerreko batek... eta bizimodu horiek zein ondorio izango dituzten... ezberdintasunak berdindu nahian ari gara, Antropozeno kontzeptuarekin egin bezala. Krisi ekologikoaren erantzukizuna [malthusianismoarekin] ezartzen duzunetik emakume beltzen sabelen ustezko gehiegizko produkzioan, diskurtso arrazista eta misoginoa ari zara egiten.

> "INGURUMENARI EGINDAKO SUNTSIKETAK AITORTU NAHI DIRA AITORTU BARIK HERRI INDIGENEN GAINEKO ZANPAKETAK. HORREGATIK DAUZKAGU HAIN DISKURTSO EXOTIKOAK: 'BEGIRA NOLA BIZI DIREN LEHEN HERRIAK, NATURAREKIN HARMONIAN'"
>
> MALCOM FERDINAND

Honek ez du esan nahi herriek ez dutenik eduki behar gogorik beren demografia egokitzeko. Baina aipatzen duzun diskurtsoa aspalditik dator, eta beti ere Mendebaldearen erantzukizunak lausotu nahi ditu. Arazoa ez balitz bezala nola bizi garen AEBetan edo Europan, gure kontsumoa, gure kontsumoaren ondorioak nola esportatzen ditugun, guregandik urrun zabaltzen dugun bortizkeria... ●

19,5 €

%100 kotoi organikoa

Kolore berriak!

Bost kolore aukeran:
Urdina, beixa, arrosa, berdea eta grisa.

Lurra herriari deika

Jaten dugun elikagai bakoitzarekin, nekazaritza eta gizarte eredu bat bultzatzen ari gara. Beraz, jatea bihur dezagun egunean hiru bider egiten dugun plazerezko iraultza!

Erosteko: argia.eus/azoka 943 37 15 45

Agroekologia mugimendua
eta ARGIA elkarlanean

Kamiseta erosita, 2 €-ko **ekarpena egingo diozu agroekologia mugimenduari** eta beste hainbestekoa ARGIAri.